| | |
|---|---|
| **IRAILAREN 18KO EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO BATZORDEBURUAREN 1/2008 KOMUNIKAZIOA, EAE-KO UDALERRIEI: LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA GARATZEN DUTEN PREMIAZKO NEURRIEI BURUZKO EKAINAREN 3KO 105/2008 DEKRETUA INDARREAN SARTZEAREN INGURUKOA.** | **COMUNICACIÓN Nº 1/2008, DE 18 DE SEPTIEMBRE, DE LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO A LOS MUNICIPIOS DE LA C.A.V., EN RELACIÓN CON LA ENTRADA EN VIGOR DEL DECRETO 105/2008, DE 3 DE JUNIO, DE MEDIDAS URGENTES EN DESARROLLO DE LA LEY 2/2006, DE 30 DE JUNIO, DE SUELO Y URBANISMO.** |
| Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea indarrean sartzean, udalaren autonomia nabarmen hedatu da, hirigintzako antolamenduaren plan eta tresnetan. Alde horretatik, Hirigintzako Antolamenduaren Plan Orokorra behin betiko onesteko eskumena nabarmentzen da. 7.000 biztanletik gorako biztanleria duten udalerrietako udalei dagokie eskumen hori, 91.1 artikuluaren arabera.<br><br>Halaber, Legearen 91. artikuluko 8. atalak ezartzen duenaren arabera, Foru Aldundiak eskuordetu egin ahal izango die plan orokorren behin betiko onespena 7.000 biztanle edo gutxiagoko biztanleria duten udalerriei.<br><br>Indarrean sartu berri den Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak betebehar batzuk ezartzen ditu: Euskal Herriko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeari bidali behar zaizkion dosierren dokumentazioaren ingurukoak dira. Zehazki, honako hauek dira betebeharrak: | La entrada en vigor de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, ha supuesto una extensión muy significativa de la autonomía municipal en la gestión de los planes e instrumentos de ordenación urbanística. En este sentido, destaca la competencia para la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana, que corresponde a los ayuntamientos en los municipios con población superior a los 7.000 habitantes, según establece el artículo 91.1.<br><br>Así mismo, el apartado 8 del artículo 91 de la Ley establece que la Diputación Foral podrá delegar la competencia de aprobación definitiva de planes generales a los municipios de población igual o inferior a 7.000 habitantes.<br><br>Pues bien, la reciente entrada en vigor del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, conlleva una serie de obligaciones que afectan a la documentación de los expedientes que deben ser remitidos a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, y que se pasan a referenciar: |

| | |
|---|---|
| **I.- INGURUMEN MEMORIA (LEHEN IEBE):** | **I.- MEMORIA AMBIENTAL (ANTES ECIA):** |
| 105/2008 Dekretuaren 31.artikuluak, *urbanizazio-jardunen eragina. Hirigintza-antolamenduko planei buruzko dokumentazioari buruzkoa*, 2. paragrafoan honako hau ezartzen du: | El artículo 31 del Decreto 105/2008, *sobre el impacto de las actuaciones de urbanización. Documentación de planes de ordenación urbanística,* en su apartado 2º dispone lo siguiente: |
| *"2.–* Dokumentazio hori aginduzkoa izango da, eta ingurumen-organoari aurkeztu beharko zaio, organo horrek, Euskadiko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen txostena bideratu aurretik, plan eta programa jakin batzuek ingurumenean dituzten ondorioen ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak agindutako ingurumen-memoria egin dezan. Memoria horrek artikulu honen lehen paragrafoko b) letran aurreikusitako txosten sektorialak hartu beharko ditu kontuan bereziki." | *"2.–* Esta documentación tendrá carácter preceptivo y deberá ser presentada ante el órgano ambiental a los efectos de la emisión por el mismo, con carácter previo al trámite de informe de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, de la memoria ambiental prescrita por la Ley 9/2006, de 28 de abril, sobre evaluación de los efectos de determinados planes y programas en el medio ambiente, que deberá considerar expresamente los informes sectoriales emitidos previstos en la letra b) del párrafo primero de este artículo." |
| Horrela, ingurumen-memoria egin dezan ingurumen-organoari egindako eskaera, EHLABari bidali behar zaizkion dosierren dokumentazioaren osagai izan beharko da. | Por tanto, la solicitud al órgano ambiental para la emisión de la memoria ambiental, debe formar parte de la documentación de los expedientes que deben ser remitidos a la COTPV |
| **II.- BIZTANLERIAREN ZIURTAGIRIA.** | **II.- CERTIFICADO DE POBLACIÓN.** |
| Aipatutako Dekretoaren Lehen Xedapen Gehigarriak, *biztanleriaren zenbaketa betebeharrak betetzeari buruzkoa*, honako hau ezartzen du, hitzez hitz: | La Disposición Adicional Primera del citado Decreto, *relativa al cómputo de población a efectos de cumplimiento de obligaciones*, establece textualmente: |
| "***Lehenengoa.–*** Biztanleriaren zenbaketa betebeharrak betetzeko.<br>Estandarrak betetzeko, hirigintza-plangintzaren behin betiko onarpenerako eskumena finkatzeko, eta dagokion udalerriko herrigunearen mende jartzen diren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen gainerako zehaztapenetarako, udal-biztanleriaren zenbaketa zehaztapen horiek jasoko dituen dokumentua hasiera batean onartzen denean egingo da, eta udalaren errolda-zerbitzuak ziurtatutako biztanleriaren arabera egiaztatuko da." | "***Primera.–*** Cómputo de población a efectos de cumplimiento de obligaciones.<br>El cómputo de la población municipal, a los efectos del cumplimiento de estándares, de determinar la competencia para aprobación definitiva de planeamiento urbanístico y para el resto de las determinaciones de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, que se hicieran depender de la entidad poblacional del respectivo municipio, se realizará en el momento de aprobación inicial del documento que recoja dichas determinaciones y se acreditará según la población certificada por el servicio de padrón municipal." |

| | |
|---|---|
| Horri jarraiki, udaleko errolda-zerbitzuak egindako biztanleria-ziurtagiria bidali beharko zaio EHLABari. | En su virtud, será necesario remitir a la COTPV certificado de población emitido por el servicio de padrón municipal. |
| **III.- UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN TXOSTENA ETA UDAL ZIURTAGIRIA.** | **III.- INFORME DEL CONSEJO ASESOR DE PLANEAMIENTO Y CERTIFICACIÓN MUNICIPAL.** |
| 2/2006 Legearen 109. artikuluak ezartzen duenez, plan orokorren behin betiko onespena emateko berezko eskumena edo eskuordetutako eskumena duten udalerriek nahitaez eduki beharko dute Udal Plangintzaren Aholku Batzordea. | El artículo 109 de la Ley 2/2006 determina la existencia obligatoria del Consejo Asesor del Planeamiento Municipal, en los municipios que tengan la competencia, propia o delegada, para la aprobación definitiva de planes generales. |
| Halaber, 105/2008 Dekretoaren Laugarren Xedapen Gehigarrian, **Udal Plangintzako Aholku Batzordearen** esku-hartzeen kasuetarako, plangintza orokorraren xedapen-aldaketen eta berrikuspenen dosierrekin aurkeztu behar diren agiriak zehazten dira, eta agiriak ez aurkezteak dituen ondorioak ere bai. | Así mismo, la Disposición Adicional Cuarta del Decreto 105/2008 *sobre el Consejo Asesor de Planeamiento Municipal*, concreta los documentos que deben acompañar a los expedientes de modificación puntual y revisión de planeamiento general, con relación a la intervención del **Consejo Asesor del Planeamiento Municipal**, y las consecuencias de su no presentación. |
| Honela dio xedapen gehigarri horrek, hitzez hitz: | De esta forma, la citada Disposición Adicional reza textualmente: |
| "***Laugarrena.–*** Udal Plangintzako Aholku Batzordea.<br>Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea indarrean jarri ondoren hasiera batean onartutako plangintza orokorraren aldaketa puntualari eta berrikuspenari buruzko espedienteetan, Udal Plangintzako Aholku Batzordearen aginduzko txostena eta Batzordeak egindako iradokizunen edo gomendioen inguruan Udalak emandako iritzia edo erantzuna erantsi beharko zaizkio espedientearen behin-behineko onarpenari buruzko erabakiari, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean xedatutakoaren arabera eska daitekeen kasuetan. | "***Cuarta.–*** Consejo Asesor de Planeamiento Municipal.<br>Los expedientes de modificación puntual y revisión de planeamiento general aprobados inicialmente con posterioridad a la entrada en vigor de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, deberán anexar al acuerdo de aprobación provisional del citado expediente el informe preceptivo del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal junto con la consideración o contestación que el Ayuntamiento haya adoptado respecto a las sugerencias o recomendaciones formuladas por aquel en aquellos supuestos en que el sea exigible según lo dispuesto por la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo. |
| Legea indarrean jarri aurretik bideratutako aurrelaburpena duten, Legea indarrean jarri ondoren behin-behinean onartu diren eta Udalak berak espedientea behin betiko onartzeko aukerari heldu nahi dioten plangintza orokorraren aldaketa puntualari eta berrikuspenari buruzko espedienteetan, | Los expedientes de modificación puntual y revisión de planeamiento general con avance tramitado antes de la entrada en vigor de la Ley y aprobados provisionalmente después de dicha fecha de entrada en vigor y que pretendan acogerse a la posibilidad de aprobación definitiva por parte del propio Ayuntamiento del |

| | |
|---|---|
| Udal Plangintzako Aholku Batzordearen aginduzko txostena eta Batzordeak egindako iradokizunen edo gomendioen inguruan Udalak emandako iritzia edo erantzuna erantsi beharko zaizkio espedienteari, behin betiko onartu aurretik. Edonola ere, betebehar hori espedienteetan beteta dagoela ulertzeko, beharrezkoa izango da dokumentua bideratzean herritarrek parte hartzeko kontseilu bati esanbidez entzutea, eta kontseilu horretan gutxienez auzokoen mugimendu bat eta mugimendu ekologista bat izatea (azken hori lurzoru ez-urbanizagarri bat berriz sailkatzen den kasuan). | expediente, deberán anexar a dicho expediente, y con carácter previo a su aprobación definitiva, el informe preceptivo del Consejo Asesor de Planeamiento Municipal junto con la consideración o contestación que el Ayuntamiento haya adoptado respecto a las sugerencias o recomendaciones formuladas por aquel. No obstante, esta obligación se entenderá cumplida en dichos expedientes siempre que en el curso de tramitación del documento se hubiera dado audiencia expresa a un consejo de participación ciudadana con presencia al menos de algún movimiento asociativo vecinal y de algún movimiento ecologista, este último en supuesto de tratarse de reclasificación de un suelo no urbanizable. |
| Plangintzako Aholku Batzordearen txostena, kontuan hartu izanari edo ez izanari buruzko udal-ziurtagiria eta egindako iradokizunak edo gomendioak kontuan ez hartzeko emandako erantzuna Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordeari igorri beharreko espedienteari gaineratu beharko zaizkio, Batzorde horrek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitako txosten loteslea eta aginduzkoa egin dezan. **Udalak Plangintzako Aholku Batzordearen txostena eta dokumentazioa ez aurkeztea Euskadiko Lurralde Antolamendurako Batzordean espedientea ez onartzeko arrazoia izango da, eta Batzorde horrek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 91.2 artikuluan aurreikusitako txostena egiteko duen epea eten egingo da.”** | La existencia del informe del Consejo Asesor de Planeamiento junto con la certificación municipal de su toma o no en consideración junto con la contestación para la no toma en consideración de las sugerencias o recomendaciones formuladas, serán documentos que deberán acompañarse al expediente que se remita a la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco para la formulación por el mismo del informe preceptivo y vinculante previsto en el artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo. **La no presentación por parte del Ayuntamiento del informe y documentación exigible del Consejo Asesor de Planeamiento será considerado motivo de inadmisión del expediente en la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco interrumpiendo el plazo de dicha Comisión para emisión del informe previsto en el citado artículo 91.2 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo”.** |
| Azkenik, hauxe gogorarazi nahi dizuet: Eusko Jaurlaritzaren web orrian (http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-578/es/) eskuragarri dauzkazuela 2006ko irailaren 25eko komunikazioa eta horren azalpen-oharra. Bertan aurki ditzakezue nahitaezko txostena egiteko EHLABra bidali behar diren dosierrak osatzeko agirien zerrenda. Orobat, komunikazio honi atxikita, **eranskinean**, agirien zerrenda hori jasotzen duen laburpen-orria doa, osatua eta eguneratua, biztanleriaren ziurtagiriari dagokion **3.4 dok.** eta **4.2** (Plangintzarako Aholku Batzordearen txostena)**, 4.3** (kontuan hartu izanari edo ez izanari buruzko udal-ziurtagiria) **eta 4.4** | Por último, recordarles que en la página web del Gobierno Vasco, http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-578/es/, tienen a su disposición la Comunicación de 25 de septiembre de 2006, y su nota aclaratoria, en las que pueden consultar la relación de documentos que deben formar parte de los expedientes a remitir a la COTPV para el preceptivo informe. Así mismo, se adjunta a esta Comunicación, como **Anexo**, una hoja-resumen en la que se recoge la citada relación de documentos de forma completa y actualizada, incorporándose a la misma el **doc. 3.4** relativo al certificado de población, y los **docs. 4.2** (Informe del Consejo Asesor de Planeamiento)**, 4.3** (Certificación municipal de |

| | |
|---|---|
| (egindako iradokizunak edo gomendioak kontuan ez hartzeko emandako erantzuna) dokumentuekin gehituta. | toma o no en consideración del informe antedicho) **y 4.4** (Contestación para la no toma en consideración de las sugerencias o recomendaciones formuladas por el repetido informe). |
| Gasteizen, 2008ko irailaren 18an. | En Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2008 |

**EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEKO BATZORDEBURUA**
LA PRESIDENTA DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

**Sin.** / Fdo.**: Esther LARRAÑAGA GALDOS**

# ANEXO

## 1.- RELACIÓN COMPLETA DE DOCUMENTOS QUE DEBEN FORMAR PARTE DE LOS EXPEDIENTES A REMITIR A LA COTPV

### A) DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA

### 1.- Formulación y fases previas (art. 90.1 y 2 LSU)

| Documento | |
|---|---|
| **Doc. 1.1.-** | Acuerdo municipal para la formulación y redacción del plan general acompañado de un programa de participación ciudadana (art. 108). |
| **Doc. 1.2.-** | Solicitud a los órganos del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral correspondiente con competencias sobre protección civil, el medio ambiente, el patrimonio cultural y el medio natural de información sobre riesgos existentes y los condicionantes medioambientales, de protección del patrimonio cultural y del medio natural que deban ser respetados. |
| **Doc. 1.3.-** | *Ayuntamientos Alaveses*, solicitud de informe a las juntas administrativas de su término municipal, en relación con los criterios a tener en cuenta en la ordenación de los servicios y bienes de titularidad concejil. |

### 2.- Fase del documento de Avance (art. 90.3 y 4 LSU)

| Documento | |
|---|---|
| **Doc. 2.1.-** | Acuerdo municipal de aprobación y exposición pública del Avance. |
| **Doc. 2.2.-** | Anuncio de la exposición pública en el boletín del territorio histórico. |
| **Doc. 2.3.-** | Anuncio de la exposición pública en el diario o diarios de mayor difusión del territorio. |
| **Doc. 2.4.-** | Escrito de remisión del avance a los ayuntamientos colindantes. |
| **Doc. 2.5.-** | En el caso de los *municipios alaveses*, escrito de remisión del avance a las juntas administrativas. |
| **Doc. 2.6.-** | Acuerdo municipal de adopción de criterios y objetivos que servirán de base para la redacción del plan general. |
| **Doc. 2.7.-** | Respecto al estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental (ECIA) / Informe de Sostenibilidad Ambiental deberá remitirse el correspondiente informe preliminar / documento de referencia y, caso de su no emisión, la solicitud del mismo. |
| **Doc. 2.8.-** | En su caso, informes sectoriales de las administraciones públicas competentes, en especial de Costas (Arts. 112 y 117 de la Ley de Costas) y Aeropuertos (DA 2ª del RD 2591/1988) y, en cualquier caso, la solicitud de los mismos. |

### 3.- Fase de aprobación inicial (art. 90.5 LSU)

| Documento | |
|---|---|
| **Doc. 3.1.-** | Acuerdo plenario de aprobación inicial. |
| **Doc. 3.2.-** | Anuncio de la exposición pública en el boletín del territorio histórico. |
| **Doc. 3.3.-** | Anuncio de la exposición pública en el diario o diarios de mayor difusión del territorio. |
| **Doc. 3.4.-** | **Certificado de población emitido por el servicio de padrón municipal** |
| **Doc. 3.5.-** | Notificación de la aprobación inicial a las administraciones públicas con competencias sectoriales. |
| **Doc. 3.6.-** | En el caso de los *municipios alaveses*, notificación de la aprobación inicial a las juntas administrativas. |
| **Doc. 3.7.-** | Escritos de alegaciones, sugerencias y reclamaciones a la aprobación inicial. |
| **Doc. 3.8.-** | Informe de resolución de las alegaciones planteadas. |
| **Doc. 3.9.-** | En su caso, informes sectoriales de las administraciones públicas competentes, en especial de Carreteras, Montes, Agricultura, Defensa, Telecomunicaciones, RENFE, Euskotren, etc. y en caso de su no emisión, la solicitud de los mismos si procede. |
| **Doc. 3.10.-** | *Ayuntamientos afectados*, informe del Patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y en caso de su no emisión, la solicitud del mismo. (Ley 5/1989, de Protección y Ordenación de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai) |

### 4.- Fase de aprobación provisional

| Documento | |
|---|---|
| **Doc. 4.1.-** | Acuerdo plenario de aprobación provisional. |
| **Doc. 4.2.-** | **Informe del Consejo Asesor de Planeamiento.** |
| **Doc. 4.3.-** | **Certificación municipal de toma o no en consideración del Doc. 4.2.** |
| **Doc. 4.4.-** | **Contestación para la no toma en consideración de las sugerencias o recomendaciones formuladas por el Doc. 4.2.** |
| **Doc. 4.5.-** | En el caso de los *municipios alaveses*, notificación de la aprobación provisional a las juntas administrativas. |
| **Doc. 4.6.-** | Solicitud del informe definitivo de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental (ECIA)/ Memoria Ambiental. |

**B) DOCUMENTACIÓN TÉCNICA**

| Documento |
|---|
| **Doc. B.1.-** Documento de Avance. |
| **Doc. B.2.-** Documento de aprobación inicial. |
| **Doc. B.3.-** Documento de aprobación provisional. |
| **Doc. B.4.-** Estudio de Evaluación Conjunta de Impacto Ambiental / Informe de Sostenibilidad Ambiental. |

## 2. NÚMERO DE EJEMPLARES Y FORMATO DE CADA EXPEDIENTE QUE DEBE SER REMITIDO A LA COTPV.

- dos (2) copias adveradas del expediente administrativo de tramitación del Plan.
- dos (2) ejemplares completos debidamente diligenciados en formato papel del documento técnico.
- dos (2) ejemplares en soporte informático, al menos del documento técnico de aprobación provisional.